**HEZKUNTZA SAILA**
Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza
**Euskara Zerbitzua**

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN**
Dirección de Innovación Educativa
**Servicio de Euskera**

EBAZPENA, 2019ko abenduaren 17koa, Hezkuntza sailburuordearena, unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterial digitalak egiteko laguntzak erabakitzen dituena (EIMA 2.0 modalitatea).

Euskarazko ikasmaterial digitaletarako laguntza-bideetara dei egin zuen Hezkuntza Sailak 2019ko uztailaren 30eko Aginduaz (2019ko abuztuaren 12ko EHAAn). Hori dela eta, Ebazpen-batzordearen proposamenez honako hau

EBAZTEN DUT

*Lehenengoa.*- 2019ko uztailaren 30eko Aginduan adierazitako prozedurari jarraituz, EIMA 2.0 modalitatean guztira banatzeko dauden 360.000 euroko diru-partidatik Ebazpen honen I. eranskinean agertzen diren dirulaguntzak esleitzea.

*Bigarrena.*- Ebazpen honen II., III. eta IV. eranskinetan aipatzen diren ikasmaterialei dirulaguntzarik ez ematea. Dirulaguntzarik ez ematearen arrazoiak ondokoak dira: II. eranskinean jasotzen dira EIMA 2.0 modalitatearen 1.4 puntuan adierazitakoaren arabera, Proiektuaren Egitura, Edukiaren Egokitasuna, Demoa edota Aurrekontua ataletan gutxieneko maila lortu ez dutenak.
III. eranskinean jasotzen direnak, kanpoan gelditu dira modalitatearen 1.3. puntua betetzen ez dutelako. Hau da, eskatzaile bakoitzeko gehienez, 2 proiektu lagunduko direla dioena.
IV. eranskinean jaso dena kanpoan gelditu da Aginduaren 23. artikuluan jasotakoa kontuan izanik. Hau da: "Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak eskabidean edo dokumentazioan zerbait gaizki dagoela edo zerbait falta dela ikusten badu, hamar eguneko epea emango dio dirulaguntza-eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Era berean, adieraziko zaio horrela egin ezean atzera egin duela ulertuko dela…"
Azkenik, V. Eranskinekoak kanpoan gelditu dira diru-partida agortu duen proiektuak baino puntuazio txikiagoa izan dutelako.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpena Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hamar (10) egun

Nahi izanez gero, J0D0Z-T1WTP-E3ZY bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: http://euskadi.eus/lokalizatzailea
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T1WTP-E3ZY en la sede electronica http://euskadi.eus/localizador

naturaleko epea izango du dirulaguntza esleitu zaion produktore bakoitzak bere produkzioa egingo duen ala ez ziurtatzeko. Halaber, hilabeteko epea izango du lan-egutegia aurkezteko. Esleitutako dirulaguntzari idatziz berariazko ukoa egiten ez badiote onuradunek kudeaketa organoari, esleitutako dirulaguntza onartutzat joko da.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa egin dezakete interesatuek, Hezkuntza sailburuaren aurrean, ebazpena Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Ebazpen honetako euskal eta erdal idazkien artean interpretazio-auzirik sortuko balitz, jatorrizkoa euskaraz idatzitakoa dela kontuan izanik hura hartuko da korapiloa askatzeko gidari.

Gasteiz, 2019ko abenduaren 17a.

Hezkuntza sailburuordea
MIREN MAITE ALONSO ARANA

# I. ERANSKINA

## LAGUNTZA JASOKO DUTEN PROIEKTUAK

| Creative Commons | | | |
|---|---|---|---|
| **ESPEDIENTEA** | **ENTITATEA** | **IKASMATERIALAREN IZENBURUA** | **DIRULAGUNTZA** |
| 2019/002CC | Puntueus Fundazioa | kaixomundua.eus. Sortzaile digitalak. | 16.700,00 |
| 2019/001CC | Badihardugu Deba Ibarreko Euskera Alkartia | Herritarren Ahotsak: Transmisioa Ikasgelan. Euskara eta Literatura Batxilergoan | 24.000,00 |
| 2019/010CC | Iametza Interaktiboa S.L. | 'EGINGARRIAK, zeuk egin eta zeuk kontatu' proiektua geletan txertatzeko dinamika eta materiala sortu eta ekoiztea | 19.760,00 |
| 2019/004CC | Andres David Espinoza Alvarez | Hasi dantzatzen | 15.906,40 |
| 2019/003CC | Azul Multimedia S. L. | Zatikien uhartea | 30.000,00 |
| 2019/008CC | Universidad de Navarra | Funtzioak: limiteak, deribatuen erabilerak eta irudikapena | 30.000,00 |
| 2019/006CC | Universidad de Navarra | Programazioa | 30.000,00 |
| | | Orotara | 166.366,40 |

| Jabetza Pribatua | | | |
|---|---|---|---|
| **ESPEDIENTEA** | **ENTITATEA** | **IKASMATERIALAREN IZENBURUA** | **DIRULAGUNTZA** |
| 2019/006 JP | Elkar-Ikastolak Zerbitzuak SL | EKI DBH2 Matematika E-liburua | 30.000,00 |
| 2019/007 JP | Elkar Argitaletxeak SL | EKI LH5 Matematika E-liburua | 30.000,00 |
| 2019/008 JP | Elkar Argitaletxeak SL | EKI LH5 Diziplinartekoa E-liburua | 30.000,00 |
| 2019/003 JP | Euskal Herriko Ikastolak Sociedad Cooperativa Europea | EKI LH 5 Euskara | 30.000,00 |
| 2019/010 JP | Euskal Herriko Ikastolak Sociedad Cooperativa Europea | EKI LH 6 Diziplinartekoa | 26.568,00 |
| 2019/005 JP | Elkar-Ikastolak Zerbitzuak SL | EKI LH5 Ingurunea | 30.000,00 |
| 2019/012 JP | Francisco Juan Baños Enriquez | Euskadi Train Trip (Euskaditik tren bidai bat) | 17.065,60 |
| | | Orotara | 193.633,60 |

# II. ERANSKINA

## LAGUNTZA JASOKO EZ DUTEN PROIEKTUAK

Proiektuaren Egitura, Edukiaren Egokitasuna, Demoa edota Aurrekontua ataletan gutxieneko maila lortu ez dutelako,EIMA 2.0 modalitatearen 1.4 puntuan adierazitakoaren arabera.

| Creative Commons | | |
|---|---|---|
| ESPEDIENTEA | ENTITATEA | IKASMATERIALAREN IZENBURUA |
| 2019/009CC | Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioa | Haurrak eta Musika III |
| 2019/005CC | Miren Garbiñe Candina Acebes | Pikto-hiztegia |

| Jabetza Pribatua | | |
|---|---|---|
| ESPEDIENTEA | ENTITATEA | IKASMATERIALAREN IZENBURUA |
| 2019/011 JP | Encodigo Formación y Rehabilitación SL | Idatziz |
| 2019/017 JP | Onoff Imagen y Comunicación SL | Pictionario |

## III. ERANSKINA

### LAGUNTZA JASOKO EZ DUTEN PROIEKTUAK

Hurrengo horiek kanpoan gelditu dira modalitateko 1.3. puntua betetzen ez dutelako. Hau da, eskatzaile bakoitzeko gehienez, 2 proiektu lagunduko direla dioena. Eskatzaile hauek 3 proiektu aurkeztu dituzte eta hirurek betetzen dituzte deialdiak ezarritako puntuazio minimoak. Beraz, 3 horietatik, orotara puntuazio txikiena lortu duten proiektuak kanpoan gelditu dira.

| Jabetza Pribatua | | |
|---|---|---|
| **ESPEDIENTEA** | **ENTITATEA** | **IKASMATERIALAREN IZENBURUA** |
| 2019/004 JP | Euskal Herriko Ikastolak Sociedad Cooperativa Europea | EKI LH 6 Matematika |
| 2019/009 JP | Elkar Argitaletxeak SL | EKI DBH4 Fisika-Kimika E-liburua |

## IV. ERANSKINA

## LAGUNTZA JASOKO EZ DUTEN PROIEKTUAK

Eranskin honetan jaso den espedientea kanpoan gelditu da Aginduaren 23. artikuluan jasotakoa kontuan izanik. Hau da: "Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak eskabidean edo dokumentazioan zerbait gaizki dagoela edo zerbait falta dela ikusten badu, hamar eguneko epea emango dio dirulaguntza-eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Era berean, adieraziko zaio horrela egin ezean atzera egin duela ulertuko dela…"

| Creative Commons | | |
|---|---|---|
| **ESPEDIENTEA** | **ENTITATEA** | **IKASMATERIALAREN IZENBURUA** |
| 2019/007CC | Tibidabo Ediciones SL | Amigos, Inteligencia, Autismo |

## V. ERANSKINA

## LAGUNTZA JASOKO EZ DUTEN PROIEKTUAK

Diru-partida agortu duen proiektuak baino puntuazio txikiagoa duelako, modalitatearen 1.4 puntuan adierazitakoaren arabera.

| Jabetza Pribatua | | |
|---|---|---|
| **ESPEDIENTEA** | **ENTITATEA** | **IKASMATERIALAREN IZENBURUA** |
| 2019/015 JP | Gestionet Multimedia SL | Aditzera Eman: Euskal aditzak lantzeko material didaktikoa. |

| | | |
|---|---|---|
| **2019/016 JP** | **Erein SA** | **Matematika E 2.9 Proiektu Digitala LH 1** |
| **2019/013 JP** | **Erein SA** | **Matematika DBH 2 on-line.** |
| **2019/014 JP** | **Gestionet Multimedia SL** | **ET SIM: Zeharkako konpetentziak lantzeko eta espiritu ekintzailea sustatzeko material didaktikoa.** |